



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ABENDUAREN 23KO 110/2008 FORU DEKRETUA, FORU OGASUNARI AITORPENAK ETA AUTOLIKIDAZIOAK BIDE TELEMATIKOZ AURKEZTEKO BALDINTZA ETA ESKAKIZUN OROKORRAK ARAUTZEN DITUENA, ALDATZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAZ

29/2017 Foru Dekretuak (maiatzaren 23koa, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituena) bere I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, jakitearren zer iritzi duten egitekoa den xedapenak eragingo dien herritarrek eta ordezkariak erakundeei; xedapenak arau esparru berri bat ezarri nahi du, eragiketa lotuetarako balorazio proposamenekin zerikusia duten informazio betebeharrak direla-eta.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, urriaren 26ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	110/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, Foru Ogasunari aitorpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak arautzen dituena.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Eguneratzea zergapekoek Foru Ogasunari aitorpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak.



ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa da araudia aplikatzeko eta beharrezkoa den koherentzia mantentzeko.
XEDEAK	<p>Internet fenomenoaren agertzeak aldatu egin zuen herri administrazioen ingurune estrategikoa eta operatiboa, eta, herritarren eta enpresen eskaerak areagotu zirela ikusita, eraginkortasun, efizientzia eta kalitate parametro berriak ezarri ziren zerbitzu publikoen prestazioan.</p> <p>Testuinguru horretan, Arabako Foru Aldundiak informazioaren gizartearen alde egin du, funtsezko helburutzat hartuta zerbitzu egiten dion gizartearen gaur egungo eta etorkizuneko eskakizunei behar bezala eta modu eraginkorrean erantzun egongo dion administrazio elektronikoa integratuaren eredua diseinatu eta garatzea.</p> <p>Beraz, Arabako Foru Aldundiak helburu hori garatu eta lortzeko behar izan diren xedapenak eta ebazpenak eman ditu, herritarrei eta enpresei beren betebeharrak errazago betetzen laguntzeko, hartara ahal den neurrian murriz daitezkeen betebeharrak betetze horrek berekin dakartzan zeharkako kostuak.</p> <p>Foru dekretuaren proiektu honen xedea da arautzea eta eguneratzea zergapekoek Foru Ogasunari aitortzen eta autolikidazioak bide telematikoak aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Azaldutako helburu horiek gauzatzeko aukerarik egokiena dela jotzen da.